

ERABAKIA, 2019ko OTSAILAREN 1EKOA, UPV/EHUko GERENTEARENA, SGIKERREKO GOI MAILAKO TEKNIKARIEN LAN POLTSAK ZABALTZEKO HAUTAKETA PROZESUETARAKO DEIALDIA EGITEKOA, ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ARLOAN (AZP) ALDI BATERAKO ZERBITZUAK BETETZEKO.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak uneoro eduki behar du eskura AZPkoen zereginak betetzeko moduan dauden pertsonen zerrenda bat, bai dauden lanpostu hutsak betetzeko, harik eta lanpostu horiek arauk agintzen duten moduan bete arte, eta bai aldi baterako premiak asetzeko.

Unibertsitatean aldi baterako lana kudeatzeko eta antolatzeko tresna 2017ko uztailaren 18ko Akordioa da, lan poltsak eratzeari eta kudeatzeari eta lan poltsetako kideak ordenatzeari buruzkoa (2018ko maiatzaren 16ko EHAA, 93. zk.),

Akordio hori aplikatuz, administrazioak dauden poltsak zabaltzeko behar dituzten lanerako moduan dauden izangaien kopurua ez denean nahikoa aurreikusten diren premiei erantzuteko. Horretarako, behar diren aldi baterako hautaketa deialdiak egingo ditu.

Hori dela eta, deialdi honen helburua da 1 titulazio taldeko pertsonak hautatzea sor litezkeen premiak betetzeko hurrengo espezialitateetan:

- 3. Mailako Euste Biologikoa
- Kalkulu Zientifikoa
- Materialen eta Gainazalen Mikroskopia:

Gerenteari eskuordetu zaio erabaki hau emateko eskumena, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia dela bide (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko erabakia, 2017ko otsailaren 3ko EHAA). Beraz, aurreko guztia kontuan hartuta, gerenteak honako hau

ERABAKI DU

Lehen artikulua.- Deialdia egitea hurrengo lan poltsak zabaltzeko hautaketa prozesuetaarako, erabaki honen I - IV. eranskinetan jasotako oinarrien arabera:

- SGikerreko Goi Mailako teknikaria (3. Mailako Euste Biologikoa)
- SGikerreko Goi Mailako teknikaria (Kalkulu Zientifikoa)
- SGikerreko Goi Mailako teknikaria (Materialen eta Gainazalen Mikroskopia: Mikroskopia Elektronikoa eta Materialen Mikroanalisisa)

Lan poltsa hauen bidez beteko diren aldi baterako eginkizunak eta lanpostuak honako talde-espezialitatekoak dira:

- 1 titulazio taldeko 3. Mailako Euste Biologikoa espezialitatea,

- 1 titulazio taldeko Kalkulu Zientifikoko espezialitatea
- 1 titulazio taldeko Materialen eta Gainazalen Mikroskopiko espezialitatea.

Prozesu honetan hautatutako pertsonak hiru campusetako edozeinetan bete ahal izango dituzte zerbitzuak.

Bigarren artikulua.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta beraren kontra aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioko gerenteari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian bi hilabeteko epean. Erabakia hedabideetan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen epe biak.

Leioa, 2019ko otsailaren 1a

Miren Lorea Bilbao Arteché
UPV/EHUko gerentea

